



Gaur Buztintxurin programatua zegoen etxegabetzea gelditzea lortu dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 22/06/2023

Hala ere Haritu elkarlaguntza sarea jakinarazi duenez oraindik mantentzen da etxegabetze arriskua

Gaur etxegabetu behar zuten Carolina eta bere bi semeak baina elkartasun antolatuari esker bertan behera utzi du Auzitegiak eta ez da polizia agertu, izan ere ehun pertsona inguru elkartu dira gaur goizean Bustintxurin.

Carolinaren etxebizitza babes sozialekoa zen baina krisia hailegatu zenean Testa funts putrea jabetzarekin egin zen honek suposatzen duen alokairu igoerarekin. Funts putre hau Blackstonen filia da 11000 pisu baino gehiago dituen estatua espainolean eta krisiaren ondorioz hainbat pisuekin egin zen Iruñan, Bustintxuri, Sanduzelai eta Errotxapeako auzoetan.

Hala ere Harituk azaldu duenez Testa putre funtsa ez da erredun bakarra Carolinaren familia etxerik gabe geratzeaz izan ere Nafarroako Gobernuak ez die alternatiba duin bat aurkeztu beraiei ez daukatela babes sozialeko etxerik beraientzat argudiatuta, baina salatu dutenez 25000 etxe huts daude Nafarroan.

Konzentrazioaren bukaeran Harituk jakinarazi du beste batean saiatuko direla etxegabetzea gauzatzen eta elkartasunari eusteko deia egin du. Hona hemen haien komunikatua:

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/gaur-buztintxurin-programatua-zegoen-etxegabetzea